



Eremu magnetiko lehor bat

Santiago F Mosteyrinen erakusketa bat,
Garazi Pascualek eta Iván Gómezek komisariatuta

Gazelak hiltzen ari ziren.

Eguzkia Kruger parkeko zelaiak kiskaltzen ari zen. Zerua, oskarbi eta garratz, euri egarri zen lurraren gainean zabaltzen ari zen. Egoera hartan, oreka hauskor bat zen bizitza: gazelak akazien hosto berdeak jateko irrikatzen zeuden; zuhaitzak, berriz, animaliei eskaintzen ari zitzaizkien beren jakiak.

Hala, ohiz kanpoko zerbait gertatzen hasi zen: gazelak hiltzen ari ziren. Ez zituen goseak hil, ezta haien gose ziren harrapariak ere. Gazelak, paradoxikoki, sabela bete zutela zeuden etzanda, herioak hartuta.

Misterioa akazietako hostoetan ezkututzen zen; aurkako ingurune hartan bizirauten ikasitako zuhaitz jakintsuak ziren haiek. Gazelak hiltzen ari baziren, akaziek sekretu bat, arma isil bat, gordezten zutelako zen.

Lehortearekin batera, gazelak akazien inguruan pilatu ziren, haien hostoak irensteko. Akaziak, ahiturik, defendatu egin ziren. Auto-babeserako ekintza horretan, taninoekin hostoak blaitzen hasi ziren. Eta gazelak hiltzen hasi ziren. Taninoen pozoiak isilpean ziharduen, mantenugaiak xurgatzea eragotziz.

Natura, anker, erruki gabe ari zen jokutzen: gazelak, ase eta gogobete, etsi-etsian bilatzen jardundako janaria digeritu ezinik hiltzen ari ziren. Zeruertzean, akaziak axolagabe ageri ziren; harro, hala ere. Eta haizean ikasbide zahar bat aditzen zen: existentzia kosta ahala kosta babestu behar da. Naturan, ez da oreka moralik existitzen; dantza bat da, non betiko elkar hartu duten bizitzak eta heriotzak.



Immunitateak kanpoko arriskuetatik babesten ditu gizabakoa eta gorputz soziala, oztopo legal, politiko eta biologikoen bitartez; bizitza babestea ahalbidetzen duen estrategia da, eta beharrezkoa eta zapaltzailea da norberaren existentziari eusteko. Aldi berean, bestea bakartzeko edo baztertzeko arriskua dakar, logika komunitarioa ukatzea, alegia. Hala, immunitatearen hedapenak markatzen du modernitatea, eta horrek ahultzen du bizitza komunitarioarekiko irekitasuna. Roberto Esposito pentsalari italiarrak biopolitikaren testuinguruan —bizitza botereak kudeatzen duen aldetik— artikulatzen du immunitatea. Espositok azpimarratzen duenez, logika immunitarioak prozesu suntsitzaileak eragin ditzake, eta, azkenean, babestu nahi den bizitza bera eraso.

Hauskortasuna berezkoa du gizakiak; hauskortasun hori gainditzea obsesio etengabea izan da eta da, oraindik ere, gizadiaren historian. Historian zehar, immunitatearen ikuspegitik heldu izan zaio zaurgarritasunari, hau da, gure babeserako dispositibo teknikoak, biologikoak edo politikoak sortuta. Hala eta guztiz ere, hauskortasuna gainditzeko saiakerak kontrol-tresna eta praktika biopolitiko bihurtzen dira: immunitateak gorputz politiko eta gorputz singularra markatzen ditu; gure gizatasunaren arrakalak sakonagoak egiten dira, komunitatea higatu egiten da, eta gorputza lehertu.

Aldi berean babesten eta hertsatzen duenaren (*immunitas*) arteko kontraesanean, komunitateak halako izaera politiko hartzen du; erresistentzia-lekua da, gehiegizko immunizazioari aurka egiteko. Beraz, galderak komunitatearen eta immunitatearen arteko dialektikan azaleratzen dira: Nola eragin bizitzaren immunizazioan heriotza ekarri gabe? Autoimmunizazioaren paradigmak modernitatearen eta biopolitikaren arteko lotura estrukturala ulertzen laguntzen du eta, sinkronikoki, agerian uzten du ontologia erlazional soila pentsatzeak dakarren zailtasuna:

“gorputza politikaren erdigunean ipintzean, eta gorputzaren erdigunean gaixotasunaren posibilitatea, biopolitikak, alde batetik, kanpoko ertz bihurtzen du gaixotasuna, bizitzak etengabe saihestu beharrezkoa, eta bestetik, barneko toles bilakatzen du, bizitza bere baitara dialektikoki bideratzeko”¹.

¹ Roberto Esposito:
Immunitas: Protección y negación de la vida. Buenos Aires: Amorrortu, 2009, 26. or.

Testu honen itzultzaileek gaztelaniazko liburutik egindako itzulpena.



Sahararen bihotzean, harea besterik ez dagoen eta isiltasuna nagusi den lekuan, han bizi zen Teneré zuhaitza, 800 kilometroko hutsartean gailentzen zen akazia bakartia. Bidaiarien eta denboraren joanaren lekuko, eta basamortuko etsaigoaren aurrean so. Hala eta guztiz ere, ez zuten ez ekaitzek eta lehortek eraitsi. 1973an, auto-gidari mozkor batek, bere gizatasun patetikoan, zuhaitza jo eta haren erresuma suntsitu zuen. Hala, erabatekoa bihurtu zen basamortuko bakardadea.

Espositorentzat komunitatea ez da leku itxi bat, edo osotasun beregain bat, bestearekiko esposizioan oinarritutako lotura baizik. Etimologikoki, *munusek* betebeharrak bati egiten dio erreferentzia, alegia, zor partekatu bati². Alde horretatik, komunitatearen oinarria da bestearenganako irekitasuna eta zor erkide hori partekatzea. Hala ere, irekitasun horrek kalteberatasuna dakar bestetik, eta gatazkatsua izan daiteke, komunitate baten parte izateak beti “osatu gabe” egotea esan nahi baitu, elkarrekikotasun-harreman batean beste batzuekin lotuta egotea.

Santiago F Mosteyrínnek, *Eremu magnetiko lehor bat* erakusketan, itxuraz kontraesanekoak diren kategoria horien aurrean jartzen gaitu, aurrez aurre ditugula hauskortasun bortitzak eta gorputz atmosferikoak. Eremu magnetikoak hausteko posibilitatearen bitartez —basamortuan sinbolizatua— ingurune oldarkor batean barneratzen gaitu hark, non ia gaindiezin bihurtzen diren giza gabeziak. Kolore, patroia eta giro sotilak baliatuz, Mosteyrínnek leku garrantz horietara eramaten gaitu: obrek espazioak sortzen dituzte edo mito eta berri izugarriak biltzen dituzte gorputz eta paisaiantzat. Basamortua eremu magnetiko lehor bilakatzen da, eta agerian geratzen da bertan gizakiaren hauskortasuna: erakusketak gizadiaren berezko ahultasunaz ohartarazten gaitu. Babesik gabeko agertoki batean, zauria bizi dugu, hauskortasuna onartzen dugu.

Komunitatearen genealogia garaikideak modu ez substantzialistan erreparatzen dio kontzeptuari; aitzitik, norberaren osagai da

² Ikus 25-30. orriak, Roberto Esposito: *Communitas: Origen y destino de la comunidad*. Buenos Aires: Amorrortu, 2007. Bertan, “komunitate” etimologiaren errebasoa egiten du autoreak, dohainaren eta hura partekatzeko betebeharraren arteko lotura azpimarratuz. Adibidez: “(...) una vez que alguien ha aceptado el munus, está obligado (onus) a retribuirlo, ya sea en términos de bienes, o en términos de servicio (officium). Nuevamente se superponen “don” y “deber” (...), 27. or.

Testu honen itzultzaileek gaztelaniazko liburutik egindako itzulpena.



bestetasuna (erlazioan izatea edo elkarrekin izatea). Horrela, inpolitikotik urruntzen da komunitatea; latinezko *communitas* erroitik abiatuta, hau da, identitate indibidualari uko egiten dion nozio gisa, bestetasunera irekitzeko prozesua hasten da: “komunitatea esposizio-harremantzat hartuta, partekatzen den dohain baten (munus) leku hutsaren inguruan”³.

Arrazoi moderno aseptikoaren ametsak Kanten etika hotzean bakartu zuen gizabanakoa. Zientziaren aurrerabideak, ordea, ez zuen ekarri lortu nahi zen aurrerabide moral eta soziala. Mundu gerrek hautsita utzi zuten gizatasuna: ezinezko bihurtu zen inperatibo kategorikoa. Horregatik, aurrerantzean, oinazearen eta hauskortasunaren eragile pasibo eta aktibo gisa ulertu behar dugu elkar.

Santiago F Mosteyrínnek immunizazio garaikidearen eta digitalaren prozesu estrukturalak eta arriskuak agerian uzten ditu, eta, era berean, prozesu horiek ezkutatzean, bere praktikak etengabeko tentsioa planteatzen du, dikotomia modernoan adostasunak desegin izanaren ondorioz.

Arrakala horietatik harremanen premia sortzen da, premia komunitarioa: norberaren zaintza, bestearen zaintza. Ildo horretatik, gainditu beharreko egoera baten pentsamendu moderno eta negatibotzat baino, potentziatzat hartzen da hauskortasuna, hain zuzen ere, berari esker berreskuratzen direnez gero kolektibitatea eta mundu erkide batekiko konpromisoa. Mundu komunaren balorizazio politikoarekin, gu-a ulertzeko eta diskurtso araugileak eragindako zauriak zaintzeko erantzukizuna sortzen da. Ertzetara zuzendutako begirada horretatik, boterea higatu egiten da, eta gorputz arrotz, digital eta protesikoekin bizi. Honela, teknikotasunaren zentzu organikoa azaleratzen da, bere sorburutik bertatik sor: kategoria (im)materialen arteko interstizioa urratzea, jostea eta higatzea, eta inguruneak berezko organismotzat duen harreman-gaitasuna jasotzea.

Komunitatean egotea erresistentzia-leku batean bizitzea da, non lekua egiten zaion inpropioari; hau da, leku horretan immunitarismoak ez du eraikiko, singulartasunen inguruan, norbera eta taldea bestetasunetik babesteko dispositiborik. Erresistentziak posizio politiko aktiboa eskatzen du: baiezko biopolitika baten beharretik sortzen da, non bizitza politikaren subjektu bilakatzen den, ez ordea, objektu. Komunaren espazioaren bitartez, bereizi beharra dago babes eta suntsipen immunitarioaren arteko dialektika. Horregatik, kontrol-dispo-

³ Marina Garcés:
Un mundo común.
Bartzelona: Bellaterra, 2013, 125. or.

Testu honen itzultzaileek gaztelaniazko liburutik eragindako itzulpena.



sitiboetatik ihes egiteko, leku erkideetan kokatu behar da politika, era horretan ez dezaten bere egin ez norbanakoek ezta estatuek ere.

Erresistentzia-leku horiek maila erkidean kokatu behar dira. Prozesu hori guztia abian jartzeko bazter utzi behar dira babes-mekanismoak —pribatutik, propiotik eta immunetik komuna babeste-koak—baita erkidearen lengoaia lorgarria ere —modernizazio edo globalizaziorako prozesutik urrundua—; kontuan hartu behar da erkidea ez dela ez publikoa ezta globala ere, ezezaguna eta errefraktarioa baizik, immunitatearen aparatu orokorrak antolatutako kategoria kontzeptualekiko. Izan ere, horizonte horretatik harago jardun eta pentsatzeko posibilitate horren gainean jokatzeko da, inpersonalaren edo inpropioaren bitartez, baiezko biopolitikaren aldeko apustua.

Santiago F Mosteyrínnek eraikitzen dituen erresistentzia-lekuek behartu egiten gaituzte gure harremanak arretaz hartzera diskurtsotik kanpo dauden gorputzekiko: liminalak, (in)organikoak, protesikoak. Hala, hutsunetan barneratzen gaitu, non zelatan dauden sentsualitate bortitzak, gure babes-hesiak urratzen dituzten gorputz esplosionatuak. Paisaia distortsionatueta sarrarazten gaituzten puntadak; topografia haluzinogenoetarako eskuzko *glitch*ak.

Utz diezaiozun hausturari gure presentzian barrena sartzen, utz diezaiozun gure gorputza markatzen: aditu, entzun eta sentitu higaduren eta igurtzien materia bizia, zeinetatik azaleratzen den zorigaitza. Basamortuko zauriak, erresistenteak eta sentsualak, gure gorputzak ahitzen dituen paisaia lehor baten zati dira.

Garazi Pascual

Donostian, 2025eko urtarrilaren 23a.

Santiago F Mosteyrínen **Eremu magnetiko lehor bat** erakusketa, aldi berean, **“Forzar lo frágil”**-en sarrera eta eranskin gisa sortua da; alegia, Iván Gómez eta Garazi Pascualen proiektua, hauskortasunaren kontzeptua ardatz duena eta honek egungo praktika artistikoa nola zeharkatzen duen ikertzea helburu duena.